

Pasaiako elkarteak biziberritzeko egitasmoa



Irudian, egitasmoarekin bat egin duten elkarteetako eta eragileetako kideak, eta Pasaia Udaleko ordezkariak, joan den astean Trintxerpen egin zuten agerraldian. OARSOALDEKO HITZA

ELKARTEAK INDARBERRITUZ HAUR ETA NERABEENTZAKO JARDUERAK UGARITZEA HELBURU

PASAIA Haur eta nerabeekin lanean ari diren elkarteek eta Pasaia Udalak urtebete daramate lanean elkarrekin, elkarten jarduerak biziberritzeko **IV**

ELKARREKIN LANEAN

Pasaia elkar-teak » Pasaia Udalak eta herriko elkar-teek lan egiteko modu berria jarri dute abian

ERREDAKZIOA

Pasaia Udalak eta herriko elkar-teek duela urtebetetik elkar-lanean ari dira. Zertarako? Denen artean Pasaia biziagoa eta parte-hartzai-leagoa eraikitzeko. Hala, Udalak eta herriari bizia ematen dioten elkar-teek batekin dute elkar-te horiek biziberritzeko egitasmoan: elkar-teen beharrak eta kezka bildu dira, eta horiei irtenbidea ematen saiatzen ari dira. *e! hemen gaude, pasa hitza* izena du Pasaia elkar-teak biziberritzeko egitasmoak.

Hala ere, hasieran, elkar-teak biziberritzeko egitasmoan ez dira herriko elkar-te guztiak bildu. Haur-entzako eta nerabeentzako jarduerak eskaintzen dituzten elkar-teak bakarrik dira proiektuaren partaide. Haurrak eta nerabeak bastea eta hauen beharrei erantzutea erronka gisa hartu dute Pasaia-

ko eragileek: Udalak, ikastetxeek eta elkar-teek. Herritar guztien ar-dura direlako herriko haurrak. Hala, Pasaian hurrekin eta nerabeekin lan egiten duten eragileak 20 dira orotara, herriko elkar-teen %34: 1.031 hurrekin egiten dute lan.

Hiru lan talde


Proiektu honek lan egiteko modu berria jarri du martxan. Elkar-lana da proiektuaren funtsa. Elkar-lana, gainera, hainbat eremutan gauzatzen ari da:

- Udal sailen artean: Gazteria eta kirol saila, Kultura eta Hezkuntza saila, Euskara saila, Gizarte-Ekintza saila eta Udaltzaingoa.
 - Elkar-teen artean.
 - Elkar-teen eta Udalaren artean.
- Elkar-lana, haur eta nerabeek dituzten beharrak definitu eta ados-

teko; elkar-teek dituzten beharrak eta kezka partekatze eta baita herriak dituen baliabideak kudeatzeko ere. Denen artean pentsatzen eta erabakitzen da zer egin eta nola egin; zeintzuk diren kezka, eta hauei zer irtenbide eman.

Elkar-lana praktikan lantaldeen bitartez ari da gauzatzen. Hiru lantalde eta gune orokorra sortu dira. Gune orokorrean lantaldeetan aztertutako proposamenak baloratu eta erabakitzen dira. Funtzionamendu eredu berria da guztientzat eta oraindik ikasteko asko duten arren, urtebeteko esperientziari begiratuta, esan daiteke elkarrengandik hurbilago daudela, konfiantza giroan egiten dutela lan, eta ongi funtzionatzen ari dela elkar-lana.

Lantalde horiek osatzeko, alde aurretik, diagnosi sakona egin zuten. Diagnosi horren emaitzaren arabera funtzionamendua hartu du egitasmoak, eta diagnosi horretan agertzen ziren gabezien baitako betebeharrak eta kezka lantzen hasi dira.



Grafika honetan, hurrekin eta nerabeekin lan egiten duten elkar-teak, arloka sailkatuta. OARSOALDEKO HITZA

» LANDUKO DITUZTEN BEHARRAK ETA KEZKAK

Proiektuak landuko dituen lan ardatzak zehazteko elkar-teek dituzten kezka eta beharrak jasotzeko irtenbidea zioten, eta horren baitan egindako diagnostikoa ondokoak jaso ziren. Jarraian datozen bi beharrak izan dira errepikatuenak, eta lehentasuna eman zaie lantzeko orduan.

Kezka nagusienak

- **Lokalak eta udal instalakuntzak.** Lokalen inguruko kezka izan da errepikatuena elkar-teen artean. Batzuk ez dute lokalik, beste batzuk izan bai, baina ez da egokia,...
- **Jendea erakartzeko beharra.** Elkar-teetara jendea erakartzeko beharra ere nabarmendu dute elkar-teek. Behar orokor horren barruan ondoko beharrak bildu dira:
 - Elkar-teetara haurrak eta nerabeak erakartzeko beharra.
 - Lan boluntarioa egiteko prest

leudekeen begirale, entrenatzaile edo eta irakasleen beharra; ez omen da erraza lan boluntarioa egiteko prest dagoen jendea topatzea. Honek, zenbait elkar-teren biziraupena kolokan jartzen du.

- Elkar-teetara zuzendaritza batzordeetako erreleboa egiteko kide berriak erakartzeko beharra. Belaunaldi berriak erakartzeko ahalegina egin nahi dute.

Bestelako beharrak

Bestelako beharrak ere jasota daude, baina aurrerago landuko dituzte proiektuko partaideek. Honakoak dira:

- **Formazioa.** Zenbait elkar-te, formazioaren gainean kezka handiak dituzte: barruko kideek zenbait lan egiteko gaitasuna eskuratzeko formazioaren beharra dute, hurrekin eta nerabeekin lan egiteko begiraleen formazio beharra.

■ **Euskara.** Euskararen presentzia sendotzeko beharra. Elkar-teek ere agertu dute hizkuntzarekiko kezka eta gainontzeko beharrak lantzen doazen neurrian lantzen ari da behar hau ere.

■ **Harremanak eta komunikazioa.** Harremanak eta komunikazioa lantzeko beharrak ere agertu dira egindako diagnostikoa; alegia, elkar-teen arteko eta Udalaren eta elkar-teen arteko harremanak sendotzeko beharra eta gogoazaldu da. Elkar hobeto ezagutu eta elkarri laguntzeko helburua lantzen ari da jada proiektua, lan egiteko moduak berak ekartzen baitu, hala-beharrez, harremana eta komunikazioa.

■ **Ekonomia.** Behar ekonomiko eta finantzarioentzako proposamenak ere landuko dira aurrerago. Babesleak topatu, autofinantzazio bideak landu, diru laguntzen kudeaketa berraztertu...

Hiru lantalde sortu dituzte

PASAIKO ELKARTEAK » Lan egiteko modua berria abian jarri dute *e! hemen gaude, pasa hitza* egitasmoaren baitan. Elkar-teek zituzten kezka eta beharrak aztertuta, nagusien gaineko lanketa berezia egiteko lantaldeak sortu zituzten. Hala, lokalen gaiarekin, haurren eta nerabeen babesaren gaiarekin, eta elkar-teetara jendea erakartzeko asmoarekin hiru lantalde sortu dituzte. Egitasmoan inplikatu dauden elkar-teetako eta Udaleko sail ezberdinetako kideek osatzen dituzte lantaldeak. Horrez gain, koordinazio gune orokorra dago, elkar-teetako eta Udaleko ordezkariekin. o.h.

HERRI BIZIAGO HELBURU



Joan den asteko astelehenean bildu ziren Pasaiko elkarteetako eta Udaleko ordezkariak, aurrera begira dituzten erronkak zeintzuk diren agertzeko. O. HITZA

Pasaiko elkarteak » Lan boluntarioa egiten ohituta daude Pasaiko elkarteak: hori baloratu eta indartu nahi du proiektuak, eta egitasmoaren helburuak horretara bideratuta daude

» PROIEKTUAREN HELBURUAK

■ **Elkarteen dinamika biziberritzea.** Horretarako elkarteek egiten duten lana goraiatu, baloratu eta elkarteetan lan egiteko ilusioa berpizten ahaleginduko dira; helburu hori landuz beste hauek ere lortuko direlakoan:

- Elkarteetako biziberritzeak elkarteetako hedapena eta zabalkundea ekar dezake.
- Elkartera bazkide eta haur/gazte gehiago hurbilaziti ditzake.
- Zuzendaritzako erreleboa errazago egiten lagun dezake.

- Begiraleak eta entrenatzaileak aurkitzea erraztu dezake.

■ **Lan egiteko modu berria.** Elkarlanean oinarritutako lan egiteko modu berria abian jartzea. Kezka eta beharrak partekatu, landu beharreko proposamenak eta irtenbideak adostu eta erabaki, eta baliabideak elkarrekin kudeatzea eskatzen du metodologia honek eta hala egiteko sortu dira guneak eta lantaldeak.

■ **Harremanak eta komunikazio indarberritzea.** Bai Udalaren eta elkarteetako arteko, eta baita elkar-

teen arteko ere. Lan egiteko modu berriak berez ekarriko du helburu hau gauzatzea.

■ **Eskaintza zabaltzea.** Elkarteak indartuz doazen neurrian eskaintza bera ugartzea ere ekar dezake; Pasaiko haurrek eta nerabeek aisialdiaz gozatzeko jarduerak berriak sortzea, alegia.

■ **Tratu ona bermatzea.** Haur eta Nerabeen Babeserako Planaren elkarteek ere beren zeregina dute eta horixe lantzen ari den lantaldea sortua dago jada eta lanean ari dira.

■ **Hizkuntza beharrak bermatzea.** Euskara eta gaztelera, biak ezagutzea bermatu behar zaie Pasaiko haurrei eta gazteei, eta ardura hori denena da: familia, eskolarena eta eskolaz kanpoko jarduerak eskaintzen dituzten guztiena. Ingarune erdaldunduetan bi hizkuntzak bermatzeko, euskararen eskaintza indartu behar da, eskola bakarrik ez baita lortzen ari, eta ezin du gainera, euskararen ezagutza eta erabilera sendotu. Honenbestez, proiektuak behar hori lantzeko konpromisoa hartu du.

ERREDAKZIOA

Ez da berria lan boluntarioa egiteko konpromisoa azken urteetan gainbehera doala. Kezka nagusi horretatik abiatuta elkarteetako dinamika biziberritzea helburu nagusi gisa hartuta ekin dio proiektuak bere bideari, dinamika biziberritzearen ondorioz beste hainbat helburu ere lortuko dituela jakitun izanda.

Helburu horien berri eman zuten joan den asteko astelehenean Trintxerpeko alkateordezkan egin zuten agerraldian. Bertan zeuden egitasmoarekin bat egin duten Pasaiko elkarteetako ordezkariak Udaleko ordezkariekin batera.

Ondoko koadrokoak dira, laburbilduz, proiektuak landuko dituen helburuak. Baina helburu horiez gain, aurrean bertan lau mugarri ezarri dituzte egitasmoan. Lehenengo joan den asteko astelehenean Trintxerpen egin zuten aurkezpen ekitaldia izan zen.

Ondoren agertzen diren hiruk dira hurrengoak:

Ekainean, gida eta webgunea

Gida Pasaiko elkarteetako, ikastetxeen eta Udalaren eskaintza laburbilduko duen euskarria izango da. Adin tarte bakoitzeko haurrek eta nerabeek Pasaian egin ditzaketen jarduerak jasoko dira gidan, gurasoen eta gaztetxoaren eskura jartzeko. Ikastetxeen bitartez eta elkarteetako bitartez banatuko da, ekainean.

Gidan informazio orokorra jasoko da, eta informazio gehiago eta zehatzagoa eta beti eguneratua jasotzeko webgunea sortuko da. Hau ere ekainerako osatu nahi dute.

Irailan, Elkarteetako Eguna

Elkarteetako eskaintzako jarduerekin osatuko den jaia kalean antolatzea da ideia.

Berez, elkarteetako eskaintzen dituzten jarduerekin osatuko da egitaraua eta haurrek eta gazteek jarduerak horietan parte hartzeko aukera izango dute.

Abenduan, boluntario lanari gizarate aitortzea

Pasaiko elkarteetako lan boluntarioa egiten duten pertsonen (nahiz zuzendaritzatan zein begirale edo entrenatzaile lanetan) aitortzen edo errekonozimendu eta esker-tza publikoa egitea da ideia.

e!
pasaiko elkarteak



I Elkarteetako ordezkariak honako iritzia dute egitasmoaren gainean

Zer ekarri dio Pasaiari proiektuak?



«Onuradun zuzenak adinganbeak izango dira»

Luli Martinez
EKAITZA GAZTE TALDEA

«Dagoeneko emaitza onak ematen ari da egitasmoa, ez baita nola nahikoa Pasaiako elkarteak elkarrekin lan egitea. Udalak elkarteak biziberritu nahi izatea oso garrantzitsua da, eta onuradun zuzenak adingabeak izango dira».



«Elkarteen lana zein den jakiteko aukera dugu»

Amaia Jauregi
BIXI-BIXI KULTUR ELKARTEA

«Elkarteen lana zein den jakiteko aukera izango dugu egitasmoaren bitartez, eta horrekin batera zein ekintza egiten ditugun partekatze-ko aukera dago ere».



«Elkar ezagutzatik ideia asko atera daitezke»

Antton Corman
SANPEDROTARRA ARRAUN ELKARTEA

«Mahai gainean elkarte bakoitzak zein aukera dituen eta zein proposamen lantzen dituen jakitea zeharo aberasgarria da. Hori gure lanerako ere inportantea da, elkar ezagutzatik ideia asko atera daitezkeelako, elkarte guztientzako onuragarriak izango direnak zalantzarik gabe»



«Beste elkarteekin lan egitea aberasgarria da»

Eneko Lilly
ALKARTASUNA DANTZA TALDEA

«Beste elkarteekin lan egitea oso aberasgarria da, eta hori elkarteentzako oso ona da, beraz, Pasaiarentzako oso ona da. Nabarmendu nahi dut egitasmoan euskarari ematen zaion garrantzia».

Zer ekarri dio elkarteari proiektuak?



«Gure jarduera zein den azaltzeko aukera dugu egitasmoarekin»

Aitor Irulegi
PASAIA KAYAK

«Lehenik eta behin elkartearen ekintzak zeintzuk diren ezagutaraztea azpimarratzekoa da, plana garatuz horretarako baliabide gehiago izango ditugulako. Bestalde, guri iruditzen zaigu Udalak elkarteekin batera abian jarri duen egitasmoak aukera ematen duela ikastetxetara nahiz udal baliabideetara iristeko, gure kasuan egiten dugun jarduera zein den azaltzeko, eta haur gehiago erakartzeko».



«Parte-hartzeari garrantzia berezia eman behar zaio, hori indartu behar da»

Angel Trecet
ITSAS MENDI KULTUR ETA KIROL ELKARTEA

«Parte-hartzeari garrantzia berezia eman behar zaio, hori indartu behar da, eta hori indartzeko baliagarria da egitasmoa. Hala, elkarte askotan, erreleboa behar da, gazteek ardurak hartu behar dituzte, eta horretan saiatzeko aukera ona da egitasmoa. Gure elkarteak zeregin zehatzak ditu urtean zehar, baina askotan pertsona berdinak gainean gelditzen dira zeregin horiek. Beraz, ardurak horiek banatzeko aukera izan daiteke egitasmoa».



«Gurasoen aurrean gure lana zein den agertzeko aukera dugu orain»

Juan Benito Fernandez
TRINTXERPE FUTBOL TALDEA

«Trintxerpe Futbol Elkartea ezaguna den arren, gurasoen aurrean batez ere gure lana agertzeko modua ikusten dugu egitasmoaren bitartez. Haurren hezkuntzaren zati gara, eta horrek dakartzan ardurak partekatuta nahi ditugu Pasaiako beste elkarteekin, eta aldi berean, gure taldeko partaide diren haurren eta nerabeen gurasoekin».

Nola bizi duzue lantaldeetan denok elkarrekin lan egite hori?



«Ondokoak zer eta nola egiten duen ikasi dugu»

Jesus Mari Moreda
TRINTXER KULTURALA

«Elkarteak herri batek duen ondakerik handienetakoa dira, eta zentzu horretan ondokoak zer eta nola egiten duen ikasi dugu. Pasaiako Udala zentzu horretan egiten ari den ahalegina eskertzekoa da».



«Denen arteko konfidantza indartzen ari da»

Josu Pagadizabal
PASAIES FUTBOL TALDEA

«Gauza asko bakarrik egiten genituen, eta horrela, besteen esperientziarekin, hori hobetzeko aukera dugu. Denen arteko konfidantza indartzen ari da, eta aurrera goaz pixkanaka. Oso ondo goazela iruditzen zait».



«Ona da elkarlana sustatzea»

Jose Manuel Maneiro
TRINTXERPE ATLETIKO KLUBA

«Bakoitzak gutxi gorabehera zer egiten duen badakigu, baina ez genuen orain arte harremanik. Kirolean, bakoitza bere jarduerara mugatzen da, eta ona da elkarlana sustatzea».



«Adostasunera askotan iritsi gara»

Jose Luis Gonzalez
DONIBANE ESKUBALOIA

«Lan talde txikietan bildu gara, behar araberako taldeetan. Orduan, adostasunera askotan iritsi gara, batez ere haurren eta nerabeen eskubideak babesteko garaian»

Urtebete daramazue lanean. Harremanak sendotzen ari dira?



«Lehen ez ginen ia ezagutzen; orain bai»

Jose Miguel Tobio
PASAIAKO TRINTXER HOCKEY TALDEA

«Beste elkarteek zer egiten duten oso-oso garrantzitsua da. Lehen ez ginen ia ezagutzen; orain bai. Horrek hobetzeko balio du, bai gure elkartearen barne mailako lanean, bai eta kanpora, herrian, egiten dugun lanean ere».



«Lehen elkartearen arteko aldea handia zen»

Leo Hidalgo
SANPEDROTARRA FUTBOL TALDEA

«Lehen elkartearen arteko aldea handia zen, bakoitzak bere lana egiten zuen eta horrekin aski. Lanean daramagun urtebetean hori aldatu egin da, eta hori, berez, lehen urrats bezala oso garrantzitsua da».



«Beharretatik irtenbideak atera ditzakegu»

Monika Rodriguez
FAMA AGA

«Elkarteetako boluntarioak batzeko balio du egitasmoak, hau da, bakoitzak dituen beharrak agertzeko esparrutzat ikusi dugu egitasmoa, eta beharretatik irtenbideak atera ditzakegu».



«Elkarteen eta Udalaren arteko distantzia txikitu da»

Aiora Alvarez de Arcaya
BOVEDA GAZTE ELKARTEA

«Bai, elkartearen arteko harremana sendotzen ari da. Nabarmendu nahiko nuke lehen elkartearen eta Udalaren artean zegoen distantzia asko txikitu dela, gurekin ari direlako lanean udal teknikariak».

Aurtengo jarduera/ekintzetatik zein nabarmenduko zenuke?



«Elkarteen gida euskarri garrantzitsua izango da»

Margari Portabales
LAMIAK DANTZA TALDEA

«Elkarteen gida informazio euskarri garrantzitsua izango dela uste dut. Elkarteetako kideek, eta herri-tarrek oro har, Pasaiaren zer dagoen eta nork antolatzen duen jakitea funtsezkoa iruditzen zait».



«Lehen eta bigarren mailako elkarteak daude»

Maripi Etxarri
PASAIA DONIBANE KOXTAPE ARRAUN ELKARTEA

«Nahiz eta denak pasaitarrak izan, elkarte batzuk lehen mailakoak dira eta beste batzuk bigarren mailakoak, erabaki politikoengatik. Horregatik, elkartearen proiektua zurikeria iruditzen zait».



«Orain arte hurrek ez dute informazio osorik izan»

Aitziber Urkola
TXASISS ELKARTEA

«Elkarteen jarduera gidarena nabarmenduko nuke. Orain arte ez dugu horrelako euskarririk izan; hurrek ez zuten hain informazio osoa izateko aukerarik, eta ez zekiten nora jo».



«Elkarteen Eguna zehazten ari gara»

Ramon Cruz
DONIBANE KJKE

«Iraileko Elkartearen Eguna nabarmenduko nuke. Boluntarioei eman beharreko saria ere garrantzitsua da. Ekitaldien baitan ere haurren eta nerabeen babesaren gaineko jardunaldia ere nabarmenduko nuke»